

INTSUSA

Senda 
belarrak

haziak 

sendabelarrak.haziak.eus
CC BY-SA-NC

INTSUSA

(*Sambucus nigra*)

INTSUSA/SABUKA/TURTA/LIN TXUSA

Intsusaren zurtoinak bi azal izaten ditu. Lehenengo azala, kanpoko, marroia eta gogorra izaten da. Azal hori kenduta bigarren azala agertzen da, fina eta berdea, ukenduak egiteko erabiltzen dena.

Greziar garaian adarrekin Sambuké izeneko musika tresna egiten zuten eta badirudi hemendik heldu dela bere latinezko Sambucus izena.

Intsusa altuera handi bat hartzen duen zuhaixka bat da. Asko nabarmentzen da loretan dagoenean. Bere loresorta zuriek argia ematen dutela dirudi!



UKENDUA



INFUSIOA



JANGARRIA



GORPUTZA
ZAINTEZA



Aire

IDENTIFIKATZEKO GAKOAK

Nolakoa da?

- Intsusak enbor gogor bat dauka, zuhaitz txiki baten antzera.
- Lore oso txiki eta zuriak ditu, eta denen artean lore sorta handi deigarri bat osatzen dute. Loreak oso usaindunak dira.
- Fruitu beltz txikiak ditu eta beraien artean multzo bat osatzen dute.
- Hosto berde luzeak ditu.

Noiz loratzen da? Udaberri-udaran loratzen da.

Non aurkituko dugu? Leku hezeak atsegin ditu, erreka, soro eta bide bazterrak.

ZERTARAKO

- Bere ezaugarri garrantzitsuenetakoa **larru azaleko arazoei** aurre egitea da: zauriak, erredurak, kolpeak, herpesak, ospelak, etab.
- Loreak **arnas bideko arazo** edo gaitz askoren aurrean lagungarri izan daitezke: katarroa, gripea, bronkitisa, etab.
- Izertitzeko, sukarra jaisteko, mukiak botzeko, etab. ere egokia da.
- Begiak garbitzeko** ere erabiltzen da, konjuntibitisaren kasuan, adibidez.

BILTZEKO GARAIAN

- Behar duguna soilik hartuko dugu beste guztia bertan utziaz.

- Zainak ez badira erabiltzen ez ditugu zainak jasoko, bestela belar hori ez da berriz hor jaioko.
- Ez ditugu babestutako eremuetan jasoko eta ahal den kasuetan, landare asko dauden tokian bilduko ditugu.
- Landarea eta ingurua zainduko ditugu.
- Kontuz kutsadurarekin, kotxeen keak, txisa...

ATAL PRAKTIKOA

KONTUZ! Edozein erabilpen egin aurretik osasun arloko profesional batekin hitz egin behar da eta bere aholkuak jarraitu. Lan honetan ematen den informazioa eta erremedioak ez dira medikuen tratamenduen ordezkotzat hartu behar.

- Intsusaren ukendua** erredurak, zauriak eta larru azaleko arazoetarako erabiltzen da.
- Intsusaren loreak** jangarriak dira. Egokiena arrautza-irinetan pasatu eta olio berotan frijitzea da. Nahi bada gaineratik azukre pixka bat bota daiteke.
- Infusioak ere egin daitezke, izertitzeko, sukarra jaisteko, edota mukiak botatzeko, besteak beste.

AKTIBITATEAK

Intsusaren loreak hartu eta nolakoak diren begiratzera animatzen zaitugu. Lore txiki askok lore sorta handi bat osatzen dutela ikusiko duzu.

ADI! Lan honetan ematen den informazioa eta erremedioak ez dira medikuen tratamenduen ordezkotzat hartu behar. Beti ere sendagile edo jakitun baten aholkupean eta ez ditugu behin ere kantitateak gehituko arriskutsua izan daitekeelako. Edozein erabilpen egin aurretik osasun arloko profesionak batekin hitz egin behar da eta bere aholkuak jarraitu. Hemen emandako informazioaren erabilera okerra eginez gero, ez gara sor daitezken arazo edo eta kalteen erantzule izango.